

## 0.- SARRERA - UHOLDEA BIDANKOZEN (2012/10/19)

Euri barra-barra ari du Bidankozen, eta badirudi udazkeneko beste edozein egun baten aurrean gaudela Erronkariko bazter honetan... Baina inork ezin du imajinatu gertatze dagoena 2012ko urriaren 19ko egunsentian. *Bintze* ugaltzak errepideko harresia jauztear eta hori bera gaunditzen *Kaseroko zubian*, enbor bat tratatuta baitago, eta hortik jaisten da errepidetik *Rakax zubiraino*, etxe batzuetan sartzen bere bidean.

Errepideko harresia jauztear esaten genuen, eta beste harresi asko lehertzen, *Bintze* ugaltzak bere bidean topatu zituen hainbat baratzena, eta hor kaltea nabariago izan da.

Ziur aski uholde hau, Bidankoze egunkari eta telebistetara eraman zuena, urte luzez gogoratuko dugu, batzuek 1937ko uholdea honen antzekoa bezala oroitzen zuten moduan.

Patuaren paradoxak, San Agustingo xietan hemerrotekako 2. bilduma aurkeztu nuen, "*Susurros del Binies*" izeneko. Orain ikusita, xuxurlen orde, orroak esango genuke.

Hasiko gara, bada, zenbaki honekin, uholdeetan arreta jarrita bereziki, eta baita ere eguraldiarekin lotutako gaiekin orokorrean.

## 1.- HISTORIA APURRAK - 1787KO UHOLDEA

Bidankoze eta Erronkaribarra bereziki, eta Aragoi ibaiko arroa orokorrean, ahazten ez diren uholdeak jasan zituzten orain dela 225 urte. Baina, 2012ko urriaren gertaturikoaren aldean, non Xabros, *Bintze* eta *Zaraitzu* erreketako goiko aldean jaso zen ekaitzako kolperik latzena, Pirinioko Ibarretan eman zen orokorki egoera arraro hura 1787an, eta halabeharrez, gure Bidankozen.

Zoritarrez, herrian uholdeak eragindako kalteen inguruko datu zehatzak ezin ditugu jakin, zeren 1787. urtea ustez jasotzen duen akten liburua, ez du inolako informaziorik urte horri dagokiona, 1793-1797 urteen epean duelarik mamia. Dokumentazio honen galera ziurrenik Konbentzio Gudarekin erlazonaturik egonen da, 1793an hasi baitzen eta gure ibarra era zuzen batean astindu zuen.

Aldiz, urte horri dagokion kontuen liburua bai egiazta diezaguke herrian

kalteak izan zirela, 1787. urtea barne duen kontu liburua, 1788. urteko 85. zenbakia duen aurrekontu elementuan laburbiltzen dira ondorengo gastuak, "*los daños y extragos que executó la extraordinaria riada del día veinte y quatro de sep<sup>o</sup> del año último ochenta y siete para presentar en el Real Consejo [...]. Veinte y seis reales y veinte y nueve más dados a Josef Marichalar, maestro albañil y carpintero, por su trabajo en hacer las declaraciones regulando el coste de los daños en puentes, paredes y demás edificios. Ocho reales a Juan Miguel Salboch y Esteban Onco [...] por la ocupación de un día acompañando a Josef Marichalar para enseñarle los parajes en que había causado daño la riada; Quarenta y ocho reales a Bautista Yrigaray y Pedro Juan Fuertes [...] por la ocupación que durante seis días tuvieron en reconocer todos los términos de esta villa y tomar razón de todos los daños ocasionados por la riada en las heredades y campos [...]*".

Ondorioztatzen dugu, bada, Bidankozen jasandako kalteak hainbat izan zirela eta, ibaia behera Zangozan orduan gertaturikoa kontuan izanda, non Aragoi ibaiko igoerak (10 metro) hiriak orduan zituen 500 etxetatik soilik 39 zutik utzi zituen, ur igoera horrek hordagokoa izan zen. Uholdeak Urzainki eta Garde ere suntsitu omen zituen eta Erronkaribarreko zubi guztiak bota zituen.

Bai garai horretan bai ondorengo uholdeetan ugaltzako ertzak orain baino garbiago zeuden, almadien jaitzierak horretara behartzen baitzuen, baina ur igoerak galera handiak sortzea horrek ere ez zuen saihestu. Eta ziurrenik, Asterixen herrixkan gertatzen zen bezala, bidankoztarrek orduan beldur zioten gauza bakarrenetako bat "*zerua gure buru gañean eror zedila*" izan zen... Eta orduan, antza, erori omen zen.

## 2.- BIDANKOZEKO HIZTEGIA - EGURALDIA

Zenbaki honetan, eta aurreikusita ez zen arren, eguraldiak gaurkotasuna markatu du eta, Bidankozarteko edizio hau ia Bidankozeko uholdeei buruzko monografikoa izango denez, atal honetan klimarekin lotura duten hitzak eskainiko ditugu:

### HAIZEA

**Cierzo:** Ipar-haizea;  
**Bochorno:** Hego-haizea;  
**Solano:** Ekialde-haizea;  
**Castellano:** Mendebalde-haizea;  
**Izabar:** Ipar-Ekialdeko-haizea;

### EURIA

**Aguarrucio:** euri fina, xirimiri;  
**Circir:** euri fina, xirimiri;  
**Zuñá** (-rekiko zerua): Zeru estalia, euria mehatxuan;

### ELURRA

**Cuniestra:** haizeak egiten duen elur pila;  
**Purnas (edo purnikak):** elur/izotz maluta txiki eta askeak;  
**Txarpaleta:** urtzen ari den elurra;  
**Usin:** haizeak eramandako elurra, zirimola asko sortzen duena;

### BESTE BATZUK

**Boira:** lainoa;  
**Lantxurda:** lainoa;  
**Lurta:** lurjausia;  
**Mayenco:** elurretako urtzaroko eguneko ordu zentraletan gertatzen den erreka uren igoera. Bere izena ezaugarria den hilabetetik hartzen du izena, Maiatzatik, erdaraz Mayo;  
**Rosada:** antzigar;

Aurrekoan bezala eta hurrengoetarako, atal honetarako edo beste edozeinerako ekarpenak ongi etorriak izango dira.

## 3.- HEMEROTEKA - XX. MENDEKO UHOLDEAK

Aldizka, betidanik egon dira uholdeak. Baina memoria oso aldakorra da, eta, gertakari batek antzeko aurrekaririk ez duela diogunean, hemerrotekek (ahal duten neurrian) eta dokumentazioa orokorrean, maiz dakarkigute burura gehienetan aurrekariren bat izan zela.

Horixe gertatzen da uholdeekin, hain zuzen ere. XX. mendearen lehenengo erdian, bost alditan, gutxienez, aurkitu izan ditugu *Bintze* ugaltxaren ur-goraldiei buruzko erreferentziak.

1904ko ekainaren 20aren inguruan, Mariano Mendigatxak Bintzearen ur-goraldi baten berri eman zuen Azkueri bidalitako gutun batean. Uholdea ekaitz batek eragin omen zuen eta saltzeko prest zeuden enbor asko eramane egin zituen, herriko almadizainei traba handiak eraginez.

1915eko ekainaren 8an, “*Estozi eta Xabrosen gainaldean zegoen eta urez, harriz eta txingorrez osatutako urakan*

*amorratu*” batek beste uholdetzar bat eragin zuen, zeinak Manuela Glaria-ren (Aristu) heriotza kausatu zuen. Kronikak zera gehitu zuen: “*uharraren hasiera ikusi zuten bizilagunek urezko mendi bat jaisten ari zela zirudiela diote, arrasteen enborrak, adarrak, haitzak, lurra etab. zeramatzala*”. Tsunami bat izan genuela Bidankozen, alegia. Ikaragarria. Uholde honek etxe bat ere bota omen zuen, zehazki zein zen ez dakigun arren. Gainera, nik dakidanez, inork ez du antzeko zerbait aipatu, egin nituen elkarrizketetan behintzat.

1937ko azaroaren 2an, euri asko egiteagatik *Bintze* eta *Ezka* ugaltzak gainezka zeuden (nahiz eta Bidankozeko datu zehatzik ez dugun ere). Errekek ibar osoan zehar enbor mordoak arrastatu zituela diote, zentral elektriko, presa, errota, baratzak eta Burgiko zubiaren zati bat ere txikituz.

1944ko uztailaren 20an “*urez eta harriz osatutako ekaitz zalapartatsu batek, zeinak, haren eraginari so eginez, aurrekaririk izan*

*ez zuen*” *Bintzek* berriz gainezka egitea eragin zuen, aldi honetan ere garraiorako prest zeuden zenbait enbor arrastatuz eta laborantzak hondatuz.

Bukatzeko, 1956ko maiatzaren 27an beste uholde handi bat suertatu zen. Aldi honetan, zentral elektrikoek, errotek eta presek denboralari aurre egin zioten, baina laborantzetan eta zurgintzan kaltea itzela izan zen. Horrez gain, Burgi elektrizitaterik gabe geratu zen denbora luzez, eta Erronkarin errekek, lehenengo aldiz, frontoia urpetu zuen. Gure ibaiari dagokionez, zera dio kronikak: “*Bintze ugaltzak Bidankozeko ibarra urpetu zuen, Erronkariko errepedearen zubiaren arkuak ia estaliz*”.

Hor ditugu ba, atzoko eta gaurko uholdeak. Aurkitu ditudan bost adibide aurkeztu ditugu, baina ziur nago garrantzia izan duten uholde gehiago egon direla.

## 4.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - LURTAK

Ez aldatzeagatik, ura eta horrelakoekin jarraituko gara. Kasu honetan, “*Lurtak*” edo “*Lurta*” - iturriaren arabera - toponimoarekin.

Alderdi honen izena, *Azaltegiako* sakanaren inguruan kokatua, lursail horren egoeraren berri ematen digu, non, dirudienez, lurra ohi baino askeago dabil. Kontua da Bidankozeko hizkeran “*lurta*” lurjausia izendatzeko erabiltzen da, eskuarki euriak eraginda.

Etimologikoki, argi ematen du hitzaren lehenengo zatia, “*lur*” zatikia, *lurrari* lotua dago. “*Lurta*” hitza bere osotasunean “*elurte*” hitzarekin antza dauka, eta horrexegatik esanahi bera izango du baina mugitzen dena elurra izan ordez, lurra.

Inguru hartako argazkirik ez izateagatik, lerro hauen ondoan lurta baten argazkia (egia esan, hartan erori zena harkaitza izan zen, eta azpian zuena eramane zuen), *Labariko Atean* errepede zati bat lehertu zuena 1998ko abenduan. Argazkia, errekatik egina, 1998/12/16ko *Diario de Navarra*n agertu zen.





## 5.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - PELAIREA / ARTUTX

Bigarren aldiz *Iriarte* auzoari buruz hitz egingo dugu. *Nagusia*, *Errota*, *Telleria* karriekin eta *Bintze* ugaltza mugatzat duen auzoa dela gogoratu dezagun. Eta teoriarik, *Lengorna* etxearen txanda izan behako luke, baina, oraingoan, ez dugu ordena beteko jarraian azalduko dizuedan arrazoiagatik: Bidankozeko zerranda historikoetan, *Lengorna* etxea *Iriburua* auzoan kokatua zegoen, (egun etxea dena garai batean lastategi moduan erabiltzen zen). Eta bizitokia, berez, gaur egun *Lengorna zaharra* bezala ezagutzen duguna zen. Eta egungo kokapenari eutsi niezaiokeen arren, *Iriburua* auzoa etxe gutxien dituen denez, ez nioke beste bat kendu nahi...

Beraz, gaur egun *Pelairia* etxea izenarekin ezagutzen dugunaren txanda da, lehenago *Artutx* etxea izenarekin ezagutzen zena. Etxeak, *Pelairia* Gaiarre familiako buruaren abizenari zor dio *Pelairia* izena, Jose Pelairia Fuertes (*Cosme / Pelairia*), 50ko hamarkadan etxea erosi zuena.

Familia honen jatorrizko etxea, *Cosme* etxea, Bidankoze zeharkatzen duen eta garai hartan eraiki zen errepidearen erdian kokatzen zen. *Cosme* etxea, *Salsipuedes* karrikan zegoen, *Monxonena* etxearen azpian, eta gehiengoaren onurarako desjabetu behar zuten, eta *Pelairia* etxea salmentan zegoenez, ba erosi egin zuten. Gaur egun, Jose Pelairia Fuertes (*Cosme / Pelairia*) eta Eugenia Gaiarre Nekotxearen (*Gaiarre*

/*Pelairia*) seme-alabak etxearen jabeak dira oraindik ere.

Izenaren esanahiari dagokionez, dagoeneko aipatu dugu jabearen abizenetik datorrela. Eta Bidankozarteko 4. zenbakian *Pelairia* etxeari buruz hitz egin genuenean ikusi genuenez, *Pelairia* izenak "lastairari" esan nahiko luke.

Baina itzuli gaitezen 1950. urtera. Orduan etxea *Artutx* izenarekin ezagutzen zuten, baina etxea hutsik zegoen, bere jabeek, Urzainki Mainz anaiek Iruñera joanak baitziren bertan zerrategi irekitzeko.



Baina Urzainki Mainz anaiak baziren, nondik datorkio etxeari *Artutx* izena? Tira dezagun haritik ea nora eramaten gaituen. Urzainki Mainz anaien amak etxe honetan zuen bere jatorria: Dionisia Mainz Monzón (*Artutx*) Miguel Guillermo

Urzainki Arguedasekin (*Arguedas*) ezkondu zen 1902. urtean.

Isidoro Mainz Artutx-en (*Artutx*) eta Juana Monzon Juankoren (*Monxon*) alaba zen Dionisia Mainz (bigarrenago ezkondu zen aita, lehenengo emaztearekin ez zuen seme-alabarik izan). Etxekoa aita zen. Antza, bizilagunen arteko harremana ona zen, belaunaldi batekoak zein besteak bizilagunekin ezkondu baitziren.

Isidoro Mainz Artutx (*Artutx*), Angel Francisco Mainz Urzainkiren (*Anarna*?) eta Angela Ignacia Artutx Perezen (*Artutx*) semea zen. Eta puntu honetan, logikoa ematen du izena, Angela Ignaciaren aitarena izatea (Sebastian Artutx), etxekoa bera baitzen... Baina Sebastian Artutx *Bomba* edo *Garro* etxekoa zen, eta bere emaztea, M<sup>a</sup> Fernina Perez, *Paxapan* zaharra etxekoa (egungo *Elizarena* etxea).

Izan ere, 1810. urtean etxe honetan Ygnacio Artutx eta Bonifacia Urzainki senar emazteak bizi ziren. Ordurako 20 urte zeramatzen seme-alabarik gabe, eta ziurrenik, Angela Ignacia Artutx eta Angel Francisco Mainz etxea jarauntsi zuten, Ignacioren besoetako alaba baitzen Angela Ignacia (hortik datorkio izena).

Beraz, *Artutx* etxeari edo *Pelairia* etxeari, izena nondik datorkion asmatu dugu azkenean.

## 6.- BIDANKOZERI BURUZKO BITXIKERIAK - MARAPENA

*Marapena* inork ez dakien noiz sortu zen kontu horietako bat da baina, behintzat garai batean, edonork ezagutzen zuen eta, batzuen konplizitatearekin eta beste batzuen lainotasunarekin, *entretenimendu* ezinhoba bihurtzen zen.

*Entretenimendu* esaten dut, azken finean bere helburua etxeko haurrak okupatuta izatea baitzen etxean lan handia zegoenean (adibidez, *matatzerri* egun batean) eta txikiak hortik ibiltzea, laguntza

baino, traba izan ahal zen. Horregatik etxeko gazteenei *marapenaren* bila bidaltzen zituzten, kasualitatez beti herriaren beste muturrean zegoena-

Eta horrela, haur bat atera ahal zen *Ornat* etxetik *marapenaren* bila *Gaiarre* etxera, non, eskaera entzutean esango zioten aurreko astean *Maisterra* etxera eramana zutela. Etxe hartara iristean, Ferminak esango zion *Diego* etxekok zutela orduan eta han galdetuko zioten

haurrari ea jada *Maisterra* etxean galdetua zuten, eta haurra baietz esatean, ziur aski *Larranbetarrek* izango zutela esango zioten.

Eta joan-etorri hauekin guztiekin eguna igarotzen zen eta, helduek lanari gogor ekiten zioten bitartean, haurrak hemendik hara *marapena* ditxosoaren bila, jakin gabe ezta zer ari ziren bilatzen edota zertarako balio zuten.

Zorioneko lainotasuna!

## 7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (EGURALDIA)

Zenbaki honetan Mariano Mendigatxak bere gutunetan duela 110 urteko Bidankozek idazten duenaren berri ematen jarraituko dugu. Baina oraingoan, hurrenkera kronologikoari jarraitu beharrean, nahikoa idatzita dagoenez, Marianok uholdeez eta eguraldi kontuez aipatzen duena islatuko dugu.

1904ko maiatzaren 22ko gutunean, Marianok gogora ekartzen zuen bi urte lehenago, bera Ligin (Xiberoa, Larrañetik 11 kilometro) Azkuerekin zela, kazkabarrak urteko uzta hondatu zuela.

Hurrengo gutunean, 1904ko ekainaren 29koa, San Pedro eguna, aipatzen zuenez *“Tenpra digu euritsu; badu bizpor egun ezdela ixiltan odei marraka”*, eta xeiak izan arren, aurten jendea triste xamar dabil *“ata zortzi erori zen ur erauntsi andi bat, eta ugaltian zuur drezatruk zauden guziuak arrankatako saltra Erribrara, erreketarik xuntatu zen urbultziuak, eraman zitien; oray dabilta nausiak, zuur eramanen biltan, baya aurten xa, ezdozkei sal, tenpra igari baita; guk ekun ginion suerte; erauntsiaren bezperan xin zen errena azken zurra saltruk”*.

Bi gutun geroago, 1904ko abuztuaren 6koan, ondokoaren berri ematen zuen: *“Konen (agorriaren) bigarnian erori zitzaikugun arri erauntsi andi bat; kartxiiri guziuak erraustu baidutu”*.

Elurte handien aipamenak ez dira falta, baina, antza denez, horiek ez zuten besteek adinako hondamendirik eragiten.

1903ko apirilaren 13an Marianok ondokoa zioen: *“Tenpra digu anitxko gaxto, eztiugu negu guziuan ekusi, kainbat elur nola orai dagona; eta egiteko gisa ere”*. Eta apirilaren erdialdea zen...



Urte berean, 5 hilabete eskas geroago, *neguko* lehenengo elurtearen berri ematen zen, udaren hondarrean bazen ere, irailak 13, hain zuzen ere: *“Tenpra ekun digu on aiketa konen amalaugarniaraino; egun kontan xin zitzaikun elurra abantxu iriaraino; eltzuiak llarnetan egon zren elurrez tapatruk; gaiza biziak ekusi eztiuguna eta ez entzun ere; ondorian bi goxez erori zen izotz bat kartxirietan talatu baizaizkugun alubiak eta gaiza tierno guziuak exartu dra; baitare patatak ere daude ostorik bage”*.

Eta hiru hilabete geroago, abenduaren 18an, beste elurtezar bat: *“Tenpra digu ulun; badu ogey egun, elurte andi batek pean gazkala; gizon guziuak gazka sukumetan, akokiñatruk, zankabizkarrak errerik; eta emaztetarik aborritruk; ezbaigiuei egiten berze gaizarik, ezik, aparioak drezaaraz, puntiualki ordu*

*xakinetako, eta, estorbu sukalte lanen antzatak. Bidiak elur anitxekz daude zerratruk; ezta nabetan baizik gente soila; orai berian dago elurra paupaka, kopoak erorten dra sonbreroak bikain andi.*

*Kemen erraitia digu, elur larriak, elur andi, elur xneak, egunaldi; nola xin baizaikugu uste bino lein, bere tenprako mendi lanak arapatu daizkugu erdi eginik; lein ezik tenpra anitx, asen da gentia kontatan zomait nestate”*.

Elurtekin hiru hilabetera herria oraindik elurak estalirik: *“Betik digu tenpra otz, eta gaude eluraren pean eztiugu berze lanik egiten baizik azken kartan erran nauna”*.

1904ko otsailaren 1eko gutunean, ohi baino latzagoa izan omen zen negu gorriari buruzko aipamenek jarraitzen zuten: *“Negu minian gaudena gisa digu tenpra re; egun dago negu guziuan ekun digun, egunik gaxtoena; usin dagonaz ezdokegu lexoetarik karrikara kukurik egin, tenpra anitxekz kola xarrekitan bada, bizi denak, aurtengo negiuaz, ekunen du kontu franko”*.

Martxoaren 1eko gutunean kontatzen zuenez, berdin jarraitzen zuten: *“Aurten, tenpra dela kasoz, iñaute eguna izan da, Gorexima egun baten bikain triste; egun guziua egon da elurrari dinba-danba; gesal bateki karriketari, ezbaizaizketen kristiaink erkin; ezen beztitu zipoterorik ere”*.

Ikusten denez, garai hartako eguraldiak ere hondamendiak eragiten zituen, eta 1903-1904ko negu hura ez zen batere gozoa izan.

## 8.- BUKAERA

Hementxe amaitzen da Bidankozarteko 6. zenbakia, Bidankozen duela gutxi izandako uholdeen berri eman duena

LAGUNTZAILEA:

eta eguraldiari buruzko hainbat kontu oroitarazi edo erakutsarazi diguna.

Hurrengo zenbakia, Aste Santurako, aurten berehala iritsiko dela.

Ordura arte, ba.